

B

BARREN


Kirolari lotuta



ETXEBIZITZA BERRIENTZAT PROMOZIOA TEXTIL HOGAR - LAGUNAK

Muelledun koltxola, biskoa 2 aldeetan
eta biskozko burko leuna

CELTA somierra,
tinkotasun
erregulagarriarekin




3D Biskoiare koltxoi grisa
eta biskozko burko leuna



80/90 x 190..... 450€
120/135 x 190..... 670€
140/150 x 190..... 695€

MOYA somierra




Muellezko koltxola
eta biskozko burko leuna



80/90 x 190..... 255€
120/135 x 190.... 355€
140/150 x 190.... 410€

ZURE GORTINAK PRESTATZEN DITUGU. NEURRI GUZTIETAKOAK DITUGU. APARTE SALTZEN DIRA.

San Roke kalea, 20 - Tel.: 943 744 457 - ELGOIBAR - www.textillagunak.com



www.spraikada.com

SPRAIKADA

Eusk6VI GrAffiti
heRiko lehi4keta

UZTAILAK 18
MUTRIKU

GRAFFITI TAILERRAK BERTSOUND SYSTEM SAIOA BREAK ZEIN DJ ERAKUSTALDIAK...

EGUN PASA AHAZTEZINA, ZATOZ MUTRIKURa

Antolatzaileak



Babesleak



Laguntzaileak



Elgoibartarron elkartasuna

Elgoibartar agurgarriok:

Miski taldeak ekin dio 2010eko kanpainari. Pentsatu nahi dut batek baino gehiagok jakingo duela zer lan egiten ari garen Elgoibarren izenean. Hala ere, lan hori hurbiletik ezagutu gabe, zaila da zenbaterainokoa den jakitea.

Alde batetik, krisiak aurtengo kanpainari eragingo dion kezka daukagu, eta bestetik, berriro ere lortuko dugula ziur gaude. Izan ere, iaz beharrezkoa lortzeko gutxi falta izan zitzaigun, baina azkenean, Expresion Sonora taldeari eta Haritz dantzari taldeari esker, helburua bete egin zen.

Hitz hauen bitartez, elgoibartarron elkartasunaz sentitzen dudana adierazi nahi dut. Egia esan, ez daukat hori adierazteko hitzik. Gure proiektuari Euskal Herriko hainbat herritako jendeak (Irun, Hondarribia, Iruñea, Donostia, Mutriku, Bermeo, Oñati, Mendara...), baita Espainiako beste herri batzuetakoak ere (Bartzelona, Madrid, Valentzia, Tarragona...) apadrinamenduekin eta gainerako laguntzekin babesa ematen badiote ere, argi daukat gure proiektua elgoibartarren laguntza guztiari esker ateratzen dela aurrera.

Inor gutxietsi gabe, hanako hau nabarmendu nahi nuke: San Lazaro Egoitzako nagusien apadrinamendua; herriko eskoletako ikasleek eta kalean dabilzan hainbat

eta hainbat jubilatuk, euren pentsioa txikia izanagatik, hurreratu eta errifak erosten dituzte.

Beraz, elgoibartarrok, askotan hunkitzen nauzuenok, mila esker, bihotz-bihotzetik.



Gemma Agirregomezkorta

"Nire txanda" atalean idatzi nahi baduzu, jarri zaitetz gurekin harremanetan:
943 74 41 12 edo barren@elgoibarkoizarra.com

**"Hitz hauen bitartez, elgoibartarron elkartasunaz sentitzen dudana adierazi nahi dut.
Mila esker, bihotz-bihotzetik"**

Blogari izan nahi?

12 blogari ditugu dagoeneko.

Zuk ere zure bloga nahi baduzu, jar zaitetz gurekin harremanetan: elgoibarren.net@elgoibarkoizarra.com helbidean.



www.elgoiBARREN.net

**Egin
klik
eta
ikusiko
duzu**



HAINBAT ABURU

Alfredo Etxeberria alkate jeltzaleari joan den astean egindako elkarrizketaren ostean, legealdi erdiari buruzko iritzia jaso du BARREnek gainerako indar politikoen artean, nahiz eta bakoitzaren egoera erabat ezberdina izan: EAE-ANVren ordezkari legez kanpo dago, EA Gobernu Taldean sartua da, eta PSE-EEK, oposizioan egon arren, hainbatetan bat egin du Gobernu Taldearekin. Udal politikari buruzko iritzi eta ikuspegi ezberdin eta kontrajarriak eman dituzte.

Legealdiko lehen bi urteen balorazioa zein da?

EAE-ANV: Salbuespen egoeran ari gara, eta kanpotik ezartzen dizkigute baldintzak: Udal hau ez da demokratikoa, herriko bigarren indarra Udaletik kanpo geratu baita. Herrigintza arloka ikusi behar dugu. Krisiaren eraginez, hirigintzan, esaterako, etxebizitzaren eroa eta gune industrial erraldoien eraikuntza mantsotu dira. Alkatetzak herriari aurpegia garbitu dio, eta polita gelditu arren, arazoek hor jarraitzen dute: peatonalizatu arren, beste alde ahaztu zaie aparkaleku falta, esaterako, konpontzea. Merkataritzan, orain diote galdeketak egin behar dituztela, baina, esaterako, merkadilloari buruzko galdeketa jendeak herri erdian nahi duela esan zuen. Plaza Txikiko erreforma ez da egin, aisialdi eta kultura gunea, parking-a barne, beha-

“Balorazioa ezin da ona izan. Erronkek hor jarraitzen dute, eta Alfredok ez die benetako arazoei aurre egin”

EAE-ANV

rrazkoa litzateke. Alkatetzak ongizatean sentibiltate falta izugarria du: laguntza eske gero eta jende gehiago dator, eta hilabete itxaron behar dute, batzuetan; behartsuentzako laguntzak murrizten ari dira. Erresidentzia eta eguneko zentroaren arazoan, Alfredok ezer gutxi lortu zuen Aldundian, eta gaur ez daukagu ez erresidentziarik ez hospitalerik, na-

haste-borraste txiki eta zaharkitua baizik. Lo-tsagarria izan da Alkatetzaren jarrera biktimen asuntoan: alde batera lerratu da garbiki, bestaldean gaudenak –lurpean batzuka– ahaztuaz. Beste arlo asko aipa ditzakegu: kiroldegia, frontoirik eza, euskararen egoera anbulatorioan, zerbitzu medikoen murrizketak, pediatria, ginekologiaren arazoak, auzo-etako berezitasunei eman zaien erantzun urria... Balorazioa ezin da ona izan. Erronkek hor jarraitzen dute, eta Alfredok ez die benetako arazoei aurre egin.

PSE-EE: Sozialiston iritziz, lehen urte biok etapa bi izan dituzte. Lehen etapak zazpizortzi hilabete iraun zuen, eta EAJ-PNV, aurreko legealdiaren inertziak, prepotentziak gobernatzen saiatu zen, oposizioaren proposamenak aintzat hartu gabe. Bigarren etapa



2008ko aurrekontua aho batez onartzean hasi zen; gero, PSE-EEk eta Gobernu taldeak bat egin zuten Legealdi Plana eta 2009ko aurrekontuak onartzeko. Gure ustez, urte bi hauetan eta Elgoibarko akordioei esker, nabarmen aurreratu dugu ongizate arloan –eguneko zentroa handitzea eta San Lazaro egoitza handitzeko akordioak–. Auzoetan hobekuntzak izan dira. Gazteentzako zerbitzu gehiago sortu dira –Gaztelekua eta Ludoteka–. Kirol-instalazioak handitu dira. Babes ofizialeko etxeak egiten jarraitzen dugu, Jaur-laritzarekin elkarlanean. Terrorismoaren biktimei omenaldia egin diegu. Plenoetan aldibereko itzulpena jarri da. Alderdi politikook arto duina dugu. Andikanoko bidegorria mar-txan da. Formakuntza eta enplegurako Ma-hai Politiko-Industrialak sortu dira. Herriko ba-randa guztiak aldatu dira. Arau subsidiarioak modu partehartzailean egitea aztertzen ari gara. Kale eta parkeen egoera nabarmen ho-betu da –Santa Ana eta Madala–. Merkatariz-tzari laguntzeko kanpaina egiten ari da. Kul-tura eta euskarari laguntza ematen jarraitzen dugu. Udalak berdintasun politika dauka. Gaizki tratatutako emakumei laguntza es-kaintzen zaie. Sigmako errotondaren lanak hasi dira... Azken batean, denon artean El-goibar politagoa egiten ari gara, eta zerbitzu hobeak lortzen, horixe eskatzen baitigute her-ritarrek. Azkenik, merkadilloari dagokionez, oposizioa erdigunera ekartzeko ari gara es-katzen, baina PNV-EAren gobernuak gaia atzeratzen ari da, aldaketaren kontra erabat ez badaude ere.

EA: Oro har, balorazioa positiboa dela esan nezake. Noski, bi urte hauetan gorabeherak egon dira, baina herrian proiektu interesgarriak martxan jarri dira, eta hainbat arlotan lan ona egiten ari dela uste dugu. Bide horretan, martxan jarri zen Legealdi Plana oso baliagarria da. Ziur nago gauzak hobeto egin daitezkeela, baina lortu da behintzat, alderdien planteamenduak mahai ganean jarri, eta horien inguruan adostasunak lortzea. EAk kudeatzen dituen sailak dagokionez, Kulturean, derrigorrezkotzat jotzen genuen herriko elkartengana gerturatzea, beraien proiektuak eta helburuak ezagutzeko, beraien iritziak eta proposamenak gogoan edukitzeko... Elkar-teak osatzen dituzten pertsonen gogo onez eta ilusioz hartu dute gerturatze hori. Animo-ak eman dizkigutenak ere badira. Euskaran



ere lana gogoz egiten ari gara, eta, oraindik egiteko asko dagoen arren, oso positibotzat daukat hartutako bidea (Euskara Biziberritze-ko Plana, euskara sustatzeko programak, Gotzon Garate beka, ...). Arlo pertsonalean, esperientzia oso aberasgarria izaten ari da. Zenbaitentzat lehendabiziko aukera izan da Udaleko zinegotzi izateko, eta, nik behintzat, bi urte hauetan gauza asko ikasteko aukera izan dut. Askotan, liberatuta ez gaudenok nahi adina denbora dedikatzeke zailtasunak baditugu ere, Udalean pasatu ditudan bi urte hauetan sentsazio positiboak dira nagusi.

“Denon artean Elgoibar politagoa egiten ari gara, eta zerbitzu hobeak lortzen, horixe eskatzen baitigute herritarrek”

PSE-EE

EB-Aralar: Ez kale, ez bale. Nahiko hotz uzten gaitu. Bi urte eta gero, zenbait arlotan gauza batzuk egin dituzte, baina balorazioa herritarrek egin dezatela. Zertan hobetu dira laguntza sozialak? Ikasleek jaso al dute joan-etorrietarako laguntzarik? Zenbat aparkaleku gehiago dago? Zertan aldatu da larunbatetako giroa? Enpresa berriak sortzeko laguntzarik eman al diete gazteei? Krisi egoera honen

aurrean zergak, jaitsi ala eutsi al zaie? Herriaren industriarekiko mendekotasunari aurre egiteko sektore berriak aztertu al da? Ala gure inguru guztia industrialde bihurtu behar dugu? Noizko herritarren benetako partehartze loteslea? Merkadilloa? Noizko gaudia eta hainbat ekintza eremu multifuntzionalera (600.000 euro)? Udalak noiz hartuko du bere gain zerbitzuen kudeaketa? Eta abar. Ba hori, ez kale ez bale, sentsazio txarra gelditzen zaigu, garai bateko gobernatze-ko modua, despotismo ilustratua, herriaren-tzat gobernatu baina herria aintzat hartu ga-be.

PP: Ez txarra, baina ezta ona ere. Elgoibartarren egoeraren alde egin beharrean, Gobernu Taldeak eta oposizioan babesten dutenek jarraikortasunaren aldeko apustua egin dute, bilgune eza eta Elgoibar lagata zeukan sasoiaren aldekoa. Paradoxikoa da: orain praktikan jartzen dute lehen kritikatzen zutena. Horrez gain, zinegotzi batzuren hertsikeria narbarmendu nahi dut, alderdia asetzearen edota karrera politikoa egitearren, errespetuz eta hitz eginez adostasunari eta elkarlanari uko egiteagatik. Ahaztu egiten dute bizilagun batzuren ordezkari garela, eta ordezkari politiko bat mespretxatzea bizilagun horiek mespretxatzea dela. Ideia eta iritzi guztiak errespetatzen ditut, eurekin ados egon zein ez, baina denek exijitzen diet errespetatu ditzaten botoa eman ziguten elgoibartarrak.

Udal Gobernuak nolako harremana eduki du oposizioarekin?

EAE-ANV: Udal barruan ez dago oposiziorik, oposizioa, hau da, ezker abertzalea, kanpoan gelditu baitzen orain sei urte. Lehen ate guztiak itxi zizkiguten, eta orain hainbat zirrikitu utzi digute gure iritzia adierazteko. Hala ere, plenoak debekatuta dauzkagu, informazioa mugatua, eta arlo ekonomikoan ez dugu ezer jasotzen. Ez gaituzte onartzen zinegotzi gisa, eta herritar huts gisa ari gara. Mechanismo batzuk eratu ditugu herrian eraginkor izateko: kale gorriko lana da, herritarrekin zuzenean egoteko aukerak sortzea, afektatuekin egotea, informazioa eta gure ideiak azalaraztea, hori guztia ezin dute ezabatu, eta hor dago gure indarra.

“Gobernua osatzeko orduan, EAK mahai gainean kondizio bat jarri zuen: Gobernu Batzordean egotea Udalean ordezkari zuten alderdi politiko guztiak”

EA

PSE-EE: Legealdiko lehen zortzi hilabeteetan harremana txarra izan zen edo ia ez zen egon. Aurrerantzean, PSE-EEK, behintzat, erlazio erraza, errespetuzkoa eta elkarlanean izan du.

EA: Nik uste dut harremana ona izaten ari dela. Izan ere, Gobernua osatzeko orduan, EAK mahai gainean jarritako kondizioetako bat izan zen Gobernu Batzordean Udalean ordezkari zuten alderdi politiko guztiak egotea. Gure ustez, kondizio hori garrantzitsua da adostasunak bilatze aldera. Ondoren etorri da Legealdi Plana, eta hor ere alderdi guztien parte-hartzea sustatu zen. Parte hartu ez duenak esan beharko du zergatik ez duen parte hartu, baina Elgoibararren intereseak diren gaiak alderdi guztien artean eztabaidatzeko foro interesgarria iruditzen zaigu.

EB-Aralar: Hasieran konfiantza handiagoko harremana izango zela pentsatzen genuen, baina, betiko moduan, Gobernu Taldeak gu aintzat hartu gabe egin eta desegiten du, hori bai, diskurtso politekin mozorrotuta. Komisio, batzar eta bestelakoek, beti izan ohi den

bezala, orain ere ez dute ezertarako balio; tramite moduan legea betetzeko, besterik ez. Nekearen politika erabiltzen dute, herri eredu eta lanerako modu ezberdinak denfendatzen ditugunok pixkanaka nazkatuko gaituztelakoan. Esaterako, alkateak BARRENe dio EB-Aralarrek ez duela parte hartzen Legealdi Planaren Jarraipen Batzordean: esan dezala egia, guk beti hartzen dugu parte Udaleko kontu guztietan (parte-hartzeak ez du esan nahi bertan fisikoki egotea). Gure ekarpenak egin genituen eta Planean agertzen dira: ez dira hain txarrak izango! Lotsagarria da bilerak langileon lan orduetan jartzea, 9:00etan. Gogoratu behar diogu gu ez garela politikatik bizi, eta ez dugula herritarrengandik 66.000 euroko soldatarik jasotzen.

PP: Txarrera joan da, eta mespretxua nagusi da. PPren borondatea izan da nahi duenarekin ondo konpontzea. Gauzak ikusteko modu ezberdina daukagu, eta ados egon gaitzeko ala ez, baina ezin da harremana baldintzatu Udal Taldea beti babesten ez bada, eta txintik esan gabe. Harremana hauxe da: “Nirekin bazaude errespetatuko zaitut; bestela kontra zaitut, eta mespretxatuko zaitut”. Ideiekiko fideltasunak bazterketa, mespretxua eta errespetu falta osoa ekarri dizkit. Beste batzuek nahiago dute printzipioak albo batera lagatzea, bigarren mailako antzezle papera lortzeko, eta Udal Taldearen prebendak eta konplazentziak jasotzeko.

Bigarren indar politikoa ez egoteak ez dio Udalari legitimitaterik kentzen?

EAE-ANV: Noski. Lopez lehendakari ilegítimo den bezala, Alfredo alkate ilegítimo da. Hauteskondeek ez dute herriaren nahia adierazten. Hainbat herritar ordezkari gabe gelditu dira. Eskubide zibil eta politikoak zapaldurik daude, eta sufragio unibertsala ezabatu dute. Demokraziaren zentzua galdu da. Alfredok dio berak ez duela legea egin, eta aurka dagoela, baina, demokrazia ezabatzen duen lege arrotz bat gestionatzen duen artean, berak ere badu ardura, Espainiaren morroi gisa ari da, PP eta PSOEkoen menpe.

PSE-EE: Eurak ez egoteak ez dio Udalari legitimitaterik kentzen, PSE-EEren iritziz. Badakigu denok, biolentzia gaitzetsiko balute,

egongo liratekeela. Beraz, euren esku baino ez dago.

EA: Argi dago Alderdien Legeak ez digula mesederik egin, baina nik argi daukadan legitimitate osoa daukala Udalbatza honek. EAren aldetik, beti adierazi dugu lege horren kontra gaudela, eta ahalegindu gara Elgoibarraren eraikuntzan denon aportazioak jasotzeko bideak jartzen, eta uste dugu zentzuren batetan bide horiek jorratzen ari garela (Udaleko Batzorde informatiboetan parte hartzea, Hiri Antolaketa buruzko aholkularitza kontseiluan...). Denok dakigu nola dagoen egoera, eta denok jarri behar dugu zerbait gure partetik gauzak konponduko badira.

EB-Aralar: Ez. Gure ustez ez da legitimitate kontua, hori baino arazo sakonagoa da; udal txean herritar guztien ahotsa ez entzutea injustizia eta eskubide urraketa larria iruditzen zaigu. Egoera honetan denok gara errudun eta biktima aldi berean, bai gaudenok, bai falta direnak. Guk demokraziak eskainitako erremintak erabiltzea erabaki genuen, eta ahal dugun neurrian egoera honi buelta emateko ekimen eta aldarrikapenak egin ditugu, eta bide horretatik jarraituko dugu.

“Lotsagarria da bilerak langileon lan orduetan jartzea, 9:00etan. Gu ez gara politikatik bizi, eta ez dugu 66.000 euroko soldatarik”

EB-Aralar

PP: Ez. Ez dutelako nahi ez daude Udalean. Joko demokratikoan ezin da onartu erakunde demokratikoetan egotea biolentzia gaitzesten ez dutenak, mehatxuak eta txantaia salatzen ez dituztenak, edota, batzuetan demostratu den moduan, terroristei laguntzen dietenak. Biolentziari uko egin beharko lioke, ETari desagertzeko eskatu eta esandakoak salatu, exijitzen eta nahi duten legitimitate demokratikoa izateko. Baina ez dute zertan kexatu, alkate honekin –batzurrekin zein besteekin egoteko gai da, unearren arabera– euren eskatutako batzordeetan parte hartzeko aukera baitute. Euren eta alkateak ez dute legea bete, eta harreman zuzena dute; guk, ez. Batzuek parte hartu beharko luketela us-

te dute. Joko demokratikotik alboratu dituztela uste badute, zergatik ez dituzte babes-ten? Ez ote zaie komenigarriagoa esatea, ondo gelditzearren, baina ezer ez egitea, ha-la komeni zaielako?

Etorkizunari begira, zer egin behar-ko luke Udalak herritarren bizi kalitatea hobetzeko?

EAE-ANV: Beste bizimodu bat eratzeko proposamena egin nahi dugu, herritarren beharrei begira, batez ere: benetako parte-hartzea sustatzen duena, barrera arkitektonikorik gabekoa, eraikuntza zentzuduna, ez espekulatiboa, lan mundu irekia eta arlo berrietara begirakoa, aisialdirako guneekin, etorkinei, adinekoei, emakumei eta gazteei begira dagoena. Ongizate arloari astindu handi bat eman behar ko zaio. Ondo iruditzen zaizkigu azkenaldian ingurumenaz Udalak hartutako erabaki batzuk, energia berriztagarri edo bidegorri buruzkoak, esaterako, baina susmoa dugu aurpegi garbitze hutsa izango ote den, Alfredo, horretan, nahiko populista baita.

PSE-EE: Elgoibarko Udalak etorkizunera begira erronka garrantzitsuak dauzka. Lehen erronka elgoibartarrei laguntza ematea da, denoi eragiten digun munduko krisia gainditzeko. Horretarako,

honako neurriak hartu behar ko ditu Udalak: enplegua sustatzea, herri-lanen bidez; egoterra bere onera etortzen laguntzeko, zergak jaitsi; enpresei edota ekintzaileei lagundu; lur industrialak sortu... Bigarrenik, sozialistonek, herritarrek parte-hartzeko prozesua sortu behar ko luke Udalak, hainbat proiektu burutzeko –kiroldegia handitu eta hobetu, Aita Agirre plazako aparkaleku berriak estazioaren eraberritzearekin batera, babestutako etxebizitzak egiteko lurra lortzea, eta aurrera eramatea Arau Subsidiarioetan onartu beharreko neurriak eta Legealdi Planean adostutakoak–.

“Ahalik eta gehien inbertitu behar da elgoibartarren onura lortzeko, eta gutxiago kaxoi batean gordeta geldituko diren proiektuetan”

PP

EA: Denok dakigu garai zailak datozela. Ahoz aho dabil ditxosozko krisia. Horrek ere eragina izango du Udalaren eguneroko lanean, baina moldatu beharra izango da. Lehen-tasunak markatu behar ko dira, eta Udalean hartu beharreko neurriak egokitu. Nik benetan uste dut Udalak orain arte hartu dituen erabakiak herritarren bizi-kalitatea hobetzeko izan direla, eta gauza askotan hobekuntza hori nabaria dela. Hala ere, etorkizuneko erronkei begira hartu beharreko erabakiak garrantzi handikoak izango dira, eta jendearen parte-hartzea bideratuko duten mekanismoak indartu behar ko dira.

EB-Aralar: Herritarren parte-hartzea sustatu eta erabakiak errespetatu. Udaleko aurrekontuen portzentaje jakin bat herritarren esku jarri, erabakitako proiektuak aurrera eramateko. Desberdintasun sozialak gainditzeko politikak martxan jarri. Gestio publikoa egin, herritarrengan eragin zuzena izan dezan (aurrekontu bera erabiliz, elgoibartarrentzat lanpostu gehiago eta soldata hobek izango lirake). Pribatizaziorik ez. Adin gutxietako herritarrentzat aisialdiaren inguruko ekimen berritzaile eta ekologikoak bultzatzea. Makina bat gauza: denak, berdintasuna, justizia soziala, pobrezia zero, herritarren parte hartzea, zerga justuagoak... lortze aldera.

PP: Ongizateak, kalitateak eta aurrerabideak izan behar dute Udalaren helburu nagusiak beti. Zerbitzuak hobetu eta gehitu behar dira. Elgoibartarren bizi-kalitatea hobetu behar dugu. Ahalik eta gehien inbertitu behar da elgoibartarren onura lortzeko, eta askoz gutxiago ikerketa eta proiektuetan –kasu gehienetan kaxoi batean gordeta gelditzen dira–, diru asko balio baitute. Gizarte zerbitzuak gehitzeko eta hobetzeko erabili daiteke diru hori; kultura-eskaintza handiagoa eta hobea izateko; auzoak, parkeak eta azpiegiturak hobetzeko; babesa emateko enpresei, gizarte edo kultura-eragileei; azken batean, bizilagunak ikusi eta gozatu dezaketen gutxiaren-tzat. Udalak ez luke dirua xahutu behar, erabiltzen duen dirua elgoibartarrena delako eta euren onurarako izan behar ko luke-elako.





BARREnek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira. Ez ahaztu **izen-abizenak, NAN** eta **telefonoa** jartzea. Bidali helbide honetara: barren@elgoibarkoizarra.com.

Danborradako batzordea

Trinitateetako danborrada egin ondoren, eta Guardiara eginiko irteera kontuan hartuta, oso balorazio positiboa egin behar dugu, bai partehartzeagatik, bai ikuskizunagatik, bai bertarautako jendeagatik. Elgoibartar guztioi eta herrira etorri zaretenoi eskerrik on eta beroena eman nahi dizuegu, zuen presentziak danborrada goratzen baitu.

Partehartzaileei zorionak eman nahi dizkizuegu ilusioz eta buru-belarri jarduteagatik. Horrek handi bihurtzen du danborrada.

Lagundu diguten ostalariei ere eskerrak eman nahi dizkiegu, baita Etxebarriko lagunei ere, lagatako tresnen bidez karroza egin ahal izan dugulako, soldatzaileei, mekanikariei, elektrizistei, pintoreei, errotulistei, arotzei eta seguruenik ahaztu dugun besteren bati buruzkoa.

Eskerrak Udalari, Kultura Sailari, Euskara Sailari, Udaltzaingoari eta brigadari, laguntzeagatik eta eskainitako lanengatik.

Mauixtxa txarangak aipamen berezia merezi du aurten, adiskidetasun bikaina erakutsi dutelako Guardiako afora girotzearan. Guardiako Udalari ere eskerrak eman nahi dizkiogu, harrera ezin hobea izan zen eta.

Etorritako hamabi bodegei ere eskerrak. Izan ere, laguntza eta lan ona egin dute. Horien lanari esker, bigarren ardo-dastaketa arrakastatsua egin dugu, denontzat atsegina izan delakoan.

Soraluzeko, Azkoitiko, Azpeitiko eta Eibarko danborradei eskerrak, lagundu egin digutelako. Nahi duzuenarako, edo noiz izango gaituzue zuen esanetara.

Era berean, eskerrak hedabide guztiei, laguntzearren.

Ikusleoi zein partehartzaile guztioi, ondo pasatu duzelakoan, eskerrik asko. Harro gaude zuen laguntzari esker.

Datorren urtera arte. Gora Elgoibarko danborrada.

Elgoibarko danborrada ☺

San Fermin Txiki Eguna dela eta

Uztailaren 7an ospatu genuen San Fermin Txiki Eguna Plana Handian. Azken urteetan, Elgoibarko Izarrako Atxutxiamaikaren udaleku irekietako ekintza bat izan bada ere, guraso batzuek iaz egin ziguten eskariari kasu eginez, aurten San Fermin Txiki Eguna irekita egon da nahi izan duenarentzat. Jaia ondo gauzatu zen, eta gustura geratu ginen denok, nahiz eta hobetzeko gauzak badauden oraindik. Une batez, euria gainean izan bagenuen ere, azkenean eguraldia zintzo portatu zen, eta ez genuen prestatutako guztia burutzeko arazorik izan.

Hori bai, huts larria izan dugu aurten: hanka sartu genuen San Fermin Txiki Eguna noiz izango zen komunikatzerakoan. Ondorioz, hedabideetan San Fermin Txiki Eguna uztailaren 8an izango zela iragarri zuten, eta jaia uztailaren 7an izan zen. Oker hori dela eta, ume eta guraso batzuek ez dute San Fermin jaiaz

gozatzeko aukerarik izan. Gurekin harremanetan jarri diren gurasoei eskatu diegu barkamena, baina, gutun honen bidez, publikoki ere eskatu nahi dugu. Pena handia eman digu gertutakoak, eta saiatuko gara berriz horrelakorik ez pasatzen.

San Fermin Txiki Eguna indartzeko eta hobetzeko ahaleginean jardun dugu orain arte, eta berdin jarraitzeko asmoa daukagu aurrerantzean ere. Nahiko genuke zuek ere San Fermin Txiki Eguna-rekin bat egitea, orain arte egin duzuen moduan. Beraz, datorren urtera arte, eta Gora San Fermin!

Atxutxiamaika

(Elgoibarko Izarra kultur elkartea) ☺

OHARRA

Datorren barixakuan, uztailaren 17an, jasoko duzue BARREn azken alea, udako oporren aurretik. Ondoren San Bartolomeetako alea prestatzen jardungo du lantaldeak. Hurrengo alea abuztuaren 23an argitaratuko dugu.

Barren

BARREnek bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea

Nafarroa enparantza, 2 · 20870 ELGOIBAR
 ☎ 943 74 41 12
 Faxa: ☎ 943 74 37 04
 E-posta: barren@elgoibarkoizarra.com
 Publizitatea: ☎ 943 74 37 04
 E-posta: barren.publi@elgoibarkoizarra.com

Argitaratzailea:





Oihana
Tarragual

Bi urteko er-
lazioaren ostean,
Ibaik kalabazak eman
zizkidan, eta BARRENe-koek bi-

kotekide berria aukeratzeko eskatu zidaten. Boluntariorik ager-
tu ez zenez, buruari bueltaka hasi nintzen. Eta, derrepentean, Don
Angel, pentsatu nuen! Pareja bitxia egiten dugu, ez duzue uste?

Ongi etorri, beraz, lapazorri! Mendaron urte askoan bizi arren, Mu-
trikuarra zera zu, txo! Baina debate hori, beste batetarako utziko du-
gu.


Kafetegian gaur Michael Jacksoni buruz ari ziren hizketan: “Zein
polita zen txikitari”, zioen batek; “dirua izan arren, begira nola amaitu
duen” erantzun dio besteak.

Ezin dut ukatu, munduko milioika jarraitzailek bezala, bere musika
gustuko dudala eta lelotuta geratzen naizela telebistan dantzan ikus-
ten dudan bakoitzean. Egun hauetan, berriro entzun ditut bere kantak,
begiak itxi eta bapatean ahaztu egin zait azkenaldian zuen itxura: ar-
gal-argala, galdutako begirada, disimulatu ezindako tristura...

“Bizitzan izan gaitzke Michel Jackson zein eskale. Heriotzak denok berdintzen gaitu”

Peter Panen antzera, betirako bizi nahi ote zuen Jacksonek? Aka-
so, Poparen Erregeak ez hiltzeko pastilla erosi zezakeela uste zuen.
Edo jasangaizta egin zaio, hemen, lurtean, bizitako zeru eta infernua.
Une argi eta ilunak.

Bizitzan izan gaitzke Michael Jackson, etxekoandre, errege zein
eskale baina heriotzak denok berdintzen gaitu. Eta eskerrak. Ez duzu
uste, Don Angel?



Angel
Bazterretxea

Hau *paraderua neria!* Ibairen kalabaza bes-
te kalabaza handiagorekin konpondu behar.
Beno, ea zer esperientzia mota sortzen zaigun
BARRENe-ko ibilera berri honetan. Mutrikun lapa-
zorri asko garela diozu, Oihana. Eta Mendaron dau-
den horrelako edo antzeko tipoei zein izen jarriko genieke?
Oraingo, baztertu dezagun gai hori, hurrengo batean beharbada
tratatzeko dugu eta.

“Geroko hori gero ikusiko dugu zer den.

Baina orain, bizi...”

Michael Jacksoni buruz oso gutxi dakit, eta bere musika ez dut
apenas entzun. Baina nonbaiteko indarra izan du, ikusi bestela
zenbat pertsona dagoen berarekin erdi zoraturik. Hilda ere seku-
lako mobida montatzen ari da bere hiletak direla eta. Zuk, Oihana,
diozu “argal-argala, galdutako begirada, disimulatu ezindako tris-
tura” nabaritu diozula eta azkenean hil egin dela. Eta baita ere dio-
zu bizitzan izan gaitzkeela era askotako pertsonak, baina azke-
nean heriotzak berdintzen gaituela denok. Bai hori horrela da. Bai-
na ni ez nago heriotzaren zain giza-berdinketa lortzeko. Ahalegi-
nak egiten ditut hemen, gure lur maitean benetako bizitza bat erai-
kitzen, pertsonen bizitza bat osatzen.

Eta pertsonen bizitza zertan oinarritzen da? Osasuna, maitasu-
na, elkarren hartu-eman garbiak, nola ez dirua eta bizitzan zehar
sortzen zaizkigun hainbat galderari erantzun egoki bat ematea.

Guzti horrek gure bizitza askoz ere sakonagoa eta aberatsa-
goa eggingo luke. Hori da nik amesten dudana.

Eta geroko hori gero ikusiko dugu zer den. Baina orain, bizi...



Elgoibarko Udala



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO



Poparen Erregearen heriotzak dolumin handia sortu du.

Artista ala frikia zen Michael Jackson?



Miren Isasi
32 urte, psikologoa

Nire ustez pertsona oso garrantzitsua izan da Michael Jackson, eta modu batean edo bestean, garai bat markatu duela iruditzen zait. Hala ere, azken urteetan bere inguruan sortu den guztia gehiegizkoa da, baina ulertu dezaket. Nire ustez, artista bat hil da.



Ane Iriondo
33 urte, teknikaria

Nahiko artista izan zen bere garaian. Jende askoren bizimodua markatu zuela iruditzen zait, eta askoren idoloa izan da. Azken urteetan, egia esan, ez dakit zer izan den, baina ulertzen dut jendeak pena hartzea bere heriotzarekin. Neuri behintzat, ez dit eragin.



Begoña Astigarraga
61 urte, etxekoandrea

Fenomeno bat zen! Niri asko gustatu izan zait beti, eta berari buruz esandakoak sekula ez ditut sinistu. Pena handia hartu dut bere heriotzarekin. Hileta gehiegizkoa izan da, eta, nire ustez, maitasun demostrazio hori guztia hil aurretik egin behar zioten.



Marta Duque
36 urte, etxekoandrea

Beti gustatu izan zait. Ikuskizun hutsa zen bera ikustea, baina gaizki amaitu du. Azken urteetan eman duen itxura txarra izan da. Hala ere, mitoa da, eta jendea horrelakoetan zoratu egiten da. Cristiano Ronaldorekin gauza bera gertatu da. Denebariko jendea dago.

Ileapaindegia • Estetika • Solariuma

Idama

Ekaineko irabazlea:
MARI PAZ RODRIGUEZ

Uztaileko saria:
SERENITY MASAJEA PINDEKIN

Antonio Arrillaga, 6-8 behea (sarrera Santa Ana kaletik)
Tel.: 943 74 40 26

Lanbroa

**Gosariak
Pintxoak
Bokatak
Plater konbinatuak**

Astelehenetik ostiralera irekita goizeko 6etatik aurrera.
Larunbat eta jaiegunetan goizeko 8etatik aurrera.

Pedro Muguruza, 5 • Tel.: 943 74 38 11 / 943 74 08 06



Karkizano gainean oso sasi handiak daude:

“Egunero joaten gara San Antolin ingurura paseatzera, eta Karkizano gainera iritsitakoan errepi-dera irten behar izaten dugu, oso sasi lhandiak daudelako. Hanketan min ematen dute, eta gainera jantziak ere hondatu egiten dira. Eskertuko genuke ingurune hori txukuntzea”.



Denda aurreko apaingarian egin du kaka txakur batek: “Ezin dut sinistul Denda aurrean pinu txiki bat jarri dut apaintzeko, eta txakur batek bertan egin du kaka. Txakur jabeari animalia apur bat zaintzeko eskatu nahiko nioke, izan ere, neuk garbitu behar izan dut kaka. Horrelako ekintzak apur bat zaindu egin behar dira iruditzen zait. Eskerrik asko”.



Altzolako jai batzordeak esker-rrak eman nahi dizkie San Juan antolatzen lagundu zieten guztiei:

“Mila esker, guztioi! Be-reziki, Sahatsu harategiari eta Casa Astigarraga kirol dendari. San Juan jaietan parte hartu duten lagun guztiak ere eskertu nahi ditugu, antolakuntzan, edota prestatutako ekintzetan parte hartu dutenak, hain zuzen ere. Bestalde, Euskal Otarraren zozketan 1.614 zenbakia izan da sariduna, eta dagoeneko agertu da irabazlea”.



Zuen kezak, galderak edo txaloak bidaltzeko:
barren@elgoibarkoizarra.com / 943-74 41 12

Jose Angel Zabala

MAHASTI

Urdaitegi eta ardandegia

Merkatu plaza, 30, 33, 34 • 615 76 03 72

MEKANOSA

Errosario, 27
 Tel: 943 74 02 84 Elgoibar

- ★ IDAZMAKINEN SALMENTA ETA KONPONKETA
- ★ MULTIKOPISTAK
- ★ FOTOKOPIADORAK
- ★ ERLOJU INDUSTRIALAK
- ★ MARRAZKETA MATERIALA
- ★ INFORMATIKA
- ★ FAX

Elgoibartarrek nolako merkadilloa nahi duten jakiteko ikerketa egiten hasi da Udala

Guztira, 300 elkarrizketa egingo dituzte, eta emaitzen arabera erabakiko dute zer egin

Herriarrek nolako merkadilloa nahi duten jakiteko ikerketa lana jarri du martxan Udalak. Orain dela hilabete batzuk hartu zuten erabakia Osoko Bilkuran, eta orain herritarren iritziak jasotzen hasi dira. Ikerketa horrek bi atal izango ditu: lehenengoan, egoeraren diagnostia egingo dute, eta bigarrean, herriko merkataritza dinamizatu eta finkatzen lagunduko duten ekimenak proposatuko dituzte. Lan horren helburua udalerriko merkataritza eta zerbitzuen sektorea biziberritzea eta indartzea da.

Diagnostia egiteko, uztailan zehar zenbait elkarrizketa egingo dituzte: bizilagunei beraien erosketa-ohitura eta merkadilloko eskaintzarekin loturiko hainbat galdera egingo dizkiete. Bestalde, merkatariekin eta ostalariekin ere egongo dira, beraien jarduerarekin zerikusia duten gaiak jorratu ahal izateko. Guztira, Elgoibarko etxebizitzetan 200 inkesta egingo dituzte, eta beste 100 merkadilloan bertan dauden bezeroen artean.



Helburua, sektorea indartzea

Sektorearen lehiakortasun baldintza zailen eta kontsumo ohiturek izan dituzten aldaketen ondorioz, "lehiakortasunari eutsi ahal izateko, etengabeko ahalegina egitea nahitaezkoa da, bai eremu pribatuan, bai eremu publikoaren alorrean", adierazi dute

Udal ordezkariak. Egoeraz jabeturik, herriko merkatarik elkarrekin elkarlanean aritu da Udala azken urteotan, sektorea indartzeko: "merkadilloa bera ere, lanerako beste tresna bat da, herritarrentzako merkataritza-eskaintza hobetzen lagun deza keena", esan dute arduradunek.

Udalak 132.000 euro inbertituko ditu Sigmako eskailera mekanikoetan



Sigmako eskailera mekanikoak egiteko obrak 132.000 euroko aurrekontua izango du, eta Estatuko fondoetatik finantzatuko dute. Udalak Aikia enpresari egokitu dizkio lanak, eta obra hasiko den egunetik, sei asteko epean amaitzea espero dute.

Aikia eraikuntza enpresak, hainbat lan egin zituen herrian joan zen legealdian ere. Besteak beste, gaztelekua, ludoteka, Plaza handiko frontoiaren atzeko aldea eta Mintxetako aldagelak egin ditu.

Bestalde, Sigmako frontoi inguruko hornikuntzak egiteko lanak lehiaketara ateratu dituzte, 258.620 eurotan.

Izena **Miguel Borinaga**



Elgoibar BH Institutuko Miguel Borinaga plaentxiarrak Eusko Jauralaritzak eskaintzen duen Batxilergoko sari berezia jaso du. Hamabost sari banatzen ditu Hezkuntza Sailak. Ikasleek ikastetxetik kanpo froga berezi bat egiten dute, eta horren arabera ematen dute saria. Miguel Borinagak 935 euro jaso ditu, eta ingelesa hitz egiten den herrialderen batera bidaia egiteko aukera dauka. Batxilergoko ikasketak ohorezko matrikularekin amaitu ditu, eta datorren urtean unibertsitatera joango da. Fisika edo ingeniariatza aeronautikoa ikasteko asmoa dauka.

Data **1936ko gerra**

1936ko Gerran hil zituzten hamalau apaiz euskaldun hil zituzten, eta horien artean Elgoibarri loturiko bi izen daude: Celestino Onaindia eta Jose Ignacio Peñagarikano. Onaindia 1936ko urriaren 28an fusilatu zuten Hernanin, 38 urte zituela. Peñagarikano, berriz, Oiartzunen hil zuten, 64 urterekin, urriaren 26an. Horien guztien oroimenez hileta elizkizun bateratua egingo dute uztailaren 11n Gasteizko katedral berrian. San Bartolome parrokiako arduradunek autobusa jarri dute elizkizun horretara joan nahi dutenentzat.

Irudia **Bukaresteko soinujolea**

Udaberria eta eguraldi ona hasi zenetik, soinujole batek alaitzen ditu goizak Nafarroa Plaza inguruan. Bukaresteko soinujolea orain dela laupabost urte iritsi zen Euskal Herrira. Durangon bizi da, eta asteen birritan etortzen da Elgoibarrera. Hainbat musika pieza eskaintzen ditu, diru eskean, eta herriz herri biltzen da, jendea ez aspertzeko. Elgoibartarrak jatorrak eta eskuzabalak direla adierazi du.



Parrokiako koroak jaietan abesteko jendea behar du

San Bartolome Jaietan abesteko jendea behar du Parrokiako koroak. Abuztuaren 23ko salbean eta abuztuaren 24ko meza nagusian hartuko du parte. Entseguak hasi dira dagoeneko, baina interesatuek oraindik badaukate parte hartzeko aukera. Uztailaren 13an eta 15ean, iluntzeko 20:30ean Parrokian bilduko dira.

San Pedroko Jaietako zozketa egin dute

San Pedroko Jaietako zozketan 2.688 zenbakia izan da jan-edanez beteriko karretillaren irabazlea (1.416 erreserbakoa). Bigarren saria telebista izan da, eta 2.550 zenbakiak jaso du (erreserba 3.431).

Sagardotegira irteera jubilatuentzat

Jubilatuaren egoitzak antolatuta, Oiartzungo Aduriz sagardotegira egingo dute irteera, uztailaren 22an. Txangoaren prezioa 28 eurokoa da, bazkaria barne.

Errioxara irteera Haizea emakume taldearekin

Haizea emakume talde antolatuta, Errioxara irteera egingo dute uztailaren 19an. 8:30ean izango da irteera, Plaza Handitik. Portal de la Riojan egingo dute lehenengo geldiunea, eta ondoren San Millan de la Cogollarantz abiatuko dira. Suko eta Yusoko monastegiak bisitatu ondoren, Badaranen egingo dute bazkaria. Haizeako bazkideek 38 euro ordaindu beharko dituzte, eta gainontzekoek, 41. Izena emateko Pitxintxu liburu dendara joan daiteke.

Eguren taldeak Madalako parkean joko du hilaren 31n

San Inazio egunean, uztailaren 31n, Madalako parkean eskainiko du kontzertua Eguren taldeak. Musika emanaldia 19:00etan hasiko da.

NAHIDON?

Emakumea kirolean

Kirola, euren bizipoza

Amaia Oñederra



Ainhoa Lendinez



Pilar Arriola



Elgoibartarrak
Andorran



Kirola egitea eta norbere burua zaintzea modan dagoen kontua da. Afizioa da askorentzat, eta beharrezana beste batzuentzat. Baina pertsona guztiek ezin diete denbora berbera eskaini kirolari: lana, etxea, familia... eta, normalean, bere buruarentzat denbora hartzeko oztopo gehien emakumeak izaten du. Elgoibarren kirola egiten duen emakume asko dago, eta horietako batzuekin berba egin du BARRENEK.

Edurne Burgaña



Ainhoa Lendinez Triatleta

Noiz hasi zinen kirola egiten?

Kirola "betiko" kontua da gure etxean. Gurasoak beti izan dira kirolzaleak, mendizaleak gehienbat. Aitari, batez ere, kirol guztiak gustatzen zaizkio, eta niri hortik dator kit zaletasuna. Askotan, kirol gehiegi egiten dudala esaten didatenean, errua aitarena dela esaten dut nik [barrez!] Eskola garaian, eskubaloian, saskibaloian eta antzekoetan aritzen nintzen. Unibertsitatean hastear nintzela, ikasketak, dantza eta kirola uztartzea zaila izango zelakoan, dantza aukeratu nuen. Orduan pentsatu nuen talde-kirola utzita, ez nuela kirolik berriro egingo eta, aitarekin korrika, bizikletan eta mendian lehen baino gehiago hasi nintzen, eta gaur arte.

"Kirolzaleontzat kirola zaletasuna baino gehiago da, bizimodua ere bada"

Zelan uztartzen dituzu eguneroko bizitza eta kirola?

Azken urteotan lanean eta ikasketetan buru-belarri nabil. Dantzan ere jarraitzen dut, eta ez da erraza dena uztartzea. Baina garrantzitsuena zoriotsu izatea da. Arazoa da denak maitemintzen nauela: kirolak, lanak, ikasketek, dantzak... Egia da zenbaitetan aukeratu egin behar izaten dudala, baina hori bizi-legea da.

Astean zenbaitetan entrenatzen zara?

Egunero entrenatzen naiz, oso arraroa da niretzat egunen batean kirolik ez egitea. Astean hiru bat aldiz ateratzen naiz bizikletan, beste hiru bat aldiz korrika eta bi aldiz igerian. Baina alderantziz egin beharko nuke! Gutxiago gustatu arren, igerian sarriago egin beharko nuke. Astean behin bederen atsedean hartzea komeni da, baina hala ere kosta egiten zait. Deskonektatzeko modu ezin hobea da kirola. Elikadurari dagokionez, ez dut dieta jakinik, baina gure etxean oso garbi jateko ohitura daukagu.

Triatloia egiten duzu. Hiru adarretatik zein gustatzen zaizu gehien?

Triatloiak eta duatloiak ikaragarri gustatzen zaizkit, hiru kirolak uztartzen dituztelako. Baina banaka, zalantzarik gabe, bizikleta da nire modalitatea. Korrika betidanik egin dut, asko gustatzen zait. Igeri egitea ere polita da, baina ni ez naiz arrain ona. Gogoa dut orain hamar bat urte, aitak Debaraino joan nahi nuen galdetu zidala. Mendiko bizikletan joan nintzen, eta hurrengo egunean ere aterako banintzen, errepidekoa nahi nuela esan nion. Eta gaur arte. Familia da nire babesa, bizitzako arlo guztietan, eta, noski, baita kirolean ere.

Zure bizitzako egunerokotasunean zer maila dauka kirolak?

Lehentasuna osasuna, familia, lana eta ikasketak dira niretzat, baina horietan gustura aritzeko kirola *behar* dut. Lanean eta ikasten ordu asko egiten ditut, baina kirolzaleontzat kirola zaletasuna baino gehiago da, bizimodua ere bada. Ni ez naiz profesionala, ezta gutxiago ere. Baina egia da kirola lehentasunetako bat dudala.

"Edozein etorri daiteke gurekin, eta jartzen dugun baldintza, bakarra da: mendira igotzea"

Izaskun Estibaritz Mendizalea

Mendia asko gustatzen zaio Izaskun Estibaritzi, eta urtean zehar botak jantzi eta askotan jotzen badu ere gailurrera, urteko asteburu bat berezia izaten da. Elgoibarko emakume talde bat –eta tartean Eibarko pare bat– mendira joateko biltzen da: 26 urte daramatzate horretan. "Edozein etorri daiteke gurekin, jartzen dugun baldintza, bakarra hau da: mendira igotzea. Ez gara pasatzeko biltzen, gailurrera igotzeko baizik".

Urte asko daramatzate mendi irteera egiten, eta, normalean, urte sasoi beretsuan, ekaina amaieran. "Aurten Andorran egon gara. 25 lagun inguru gara taldean, eta aurten 16 bildu gara. Terapia bat da mendira joatea, merkea gainera".

"Beti ibili izan gara mendian, eta horregatik, urtean asteburu bat



edo astebete guretzako hartzen dugu: Marokon egon gara, Kilimanjaron ere bai. Leku askotan egon gara: helburua mendi interesgarria izatea da, baina teknikoki erraza izatea, bestela taldea murritzuko litzateke".

Arduraduna da Izaskun mendian, eta mendia aukeratzeko orduan hainbat faktore edukitzen ditu kontuan: "Soka erabiltzea derri-gorra bada, adibidez, horra ez gara joaten. Gida gabe joaten gara: aurrean eta atzean joaten garenek ezagutzen dugu mendia".

Taldeko gazteenak 51 urte ditu, eta zaharrenak 68 urte. "27 urterekin hasi ginen irteera hauek antolatzen, eta urteak guztiontzat doaz aurrera. Hori gorputzean nabaritzen da, baina beti lortu dugu helburua: tontorrera igotzea".

“Kirola egiten nagoenean beste guztiaz ahazten naiz, eta horrek ez dauka preziorik”

Urteko ia egun guztietan entretzen dira kirola egiten duten asko, baina, kirol batzuk ezin dira urteko edozein egunetan egin. Horietako bat da eskia. Izan ere, neguan bakarrik egin daiteke; eta batzuetan, hori ere ez. Amaia Oñederrak trabesiako eskia egiten du.

“Txikitatik gustatu izan zait kirola eta batez ere mendira joatea, gurasoekin hasi nintzen mendira joaten, gero lagunekin... eta trabesiako eskiak, mendira joan eta eskia-tzeko aukera ematen zidala ikusita, probatzea erabaki nuen. Hiru denboraldi inguru egin ditut eskiatzen, eta normalean astebururo joaten naiz. Lehenengo pistetan, teknika pixka bat hartu bihar da trabesian hasteko. Erdiko maila lortutakoan trabesiarekin hasteko segurtasun handiagoa daukazu”.

Kirola afiziotzat dauka Amaiak, eta gogo daukanean bakarrik egiten du: “Norma-

lean asteburuetan egiten dut kirol gehien. Batez ere, jendearekin kirola egitea gustatzen zait, gutxitan joaten naiz bakarrik”.

Eski denboraldia hasi orduko, elurretara joaten da Amaia: “Batzuetan pistetan eskiatzen dut eta beste batzuetan trabesia. Egia esan, gustura joaten naiz, eta gustura eskiatzen dut. Gogorik ez daukadan momentuan ez dut egiten. Baina normalean desiratzen egoten naiz, eta askotan denboraldia labor geratzen zait. Aurten denboraldia luzea izan da, eta elur dezente egon da: zortzi hilabete inguru eskia-tzeko aukera eduki dugu. Azaroko lehen astean hasi ginen, eta ekainaren 28an ere eskiatzen egon gara Vignemalen. Eskiak bizkarrean eraman eta glaziarean eskiatu dugu”.

Gozatu egiten du kirola egiten Amaiak, eta eguneroko estresa arintzeko ere balio diola dio: “Gozatu egiten dut kirola egiten,



Amaia Oñederra
Eskiatzailea

eta kirolarekin gustura sentitzen naiz. Aldi berean deskargatzeko modua ere badela iruditzen zait, kirola egiten nagoenean beste guztiaz ahazten naiz, eta horrek ez dauka preziorik”.

Eski moten artean trabesia gustatzen zaio gehien: “Gehiago disfrutatzen dut trabesia egiten: mendira igotzeko aukera daukazu, lagunekin denbora polit bat pasatzeko aukera, inguruaz disfrutatzekeo aukera, eta, gainera, gero zuk igotakoa eskiekin jais-teko aukera ere. Zer gehiago nahi duzu”.



Pilar Arriola
Antxintxikaria

Noiz hasi zinen kirola egiten?

Hamar urterekin hasi nintzen. Eskolako kirolean parte hartu eta irabazi egin nuen. Jose Luis Oria ibiltzen zen orduan entrentzailea eta berak esan zidan ea entrenatzen hasi nahi nuen, krossetara-eta joateko. Ahizpa eta biok hasi ginen. Gu, gazteenak ginen. Gero, 17 bat urterekin, belozitate egiten hasi nintzen. Eta geroago, herri lasterketak. Mendiko maratoiak hasi zirenean, hor hasi nintzen parte hartzen. Afizio moduan hasi eta Espainiako kopa irabaztea lortu nuen bi urte jarraian; baita munduko txapelketara joatea ere, Suitzara.

“Umeak ohituta daude ama saltaka ikustera eta domeka goizetan lasterketetara joatera”

Zelan uztartzen dituzu eguneroko bizitza eta kirola?

Denbora gutxi daukat entrenatzeko. Lana, umeak... Denera ailegatzea nahi izaten dut eta batzuetan eguna azkarregi pasatzen dela iruditzen zait. Adibidez, iaz, maratoia egiteko goizeko zazpirak baino lehen joaten nintzen entrenatzera. Hurrengo, gaueko bederatziretan, umeak ohean sartu eta gero.

Astean zenbatetan entrenatzen zara?

Egia esan, orain astean birritan joaten baina, konforme. Gero, domeka askotan lasterketetara joaten gara familia guztia. Lehiatzea asko gustatzen zait. Elikadura ez dut sekula gehiegi zaindu, ezta Euskadiko Selektzioarekin egon nintzenean ere. Makarroiak lasterketa bezperan, eta kitto.

Kirol profesionalera bidean gizonetzkoen ibilbidea errazagoa izaten da beti. Zer iruditzen zaizu?

Alde batetik, babesle gehiago egoten da gizona laguntzeko nahian. Beraz, diru gehiago dago. Beste alde batetik, gizonak ez du haurdunaldirik. Nik, adibidez, hamalau Behobia egin ditut hamasei urtetan, eta laga ditudan biak bata haurdun nengoelako eta bestea bigarren umea eduki berri nengoelako izan dira. Gizona izango barenintz, ziur asko, hamasei Behobia edukiko nituen eginda.

Zure bizitzako egunerokotasunean zer maila dauka kirolak?

Nire bizitzan, oso inportantea da; hobeto esanda, beharizan bat da. Umeak ere ohituta daude ama saltaka ikusten, eta karreretara joaten domeka goizetan. Hiru bat egun segidan saltaka egin gabe baldin bago, behar hori edukitzen dut, umorea eta dena aldatzen zait. Kirolari esker, lagun on asko ditut leku askotan, eta toki asko ezagutu ditut.

Skainean...

JAIOTAKOAK



Maialen Azkoaga Telleria
Ekainak 1
Zigor eta Oihana



Josu Bastida Diez
Ekainak 3
Jose Ramon eta Marta



Jone Kortaberria Mugerza
Ekainak 10
Alberto Jorge eta M. Jose



Endika Gorosabel
Leyaristi Ekainak 11
Ibon eta Leire



Luken Alzaga Santolaya
Ekainak 13
Txus eta Cristina



Maien Kanalaetxebarria
Ondarra Ekainak 16
Iker eta Alaitz



Maria Jimenez Gonzalez
Ekainak 20
Pedro Javier eta Aintzane



Unai Sanz Zubiaurre
Ekainak 29
Kristian eta Oihana

Josu de la Fuente Miguez
Ekainak 4
Josu eta Vanesa

Imanol Palomino
Gallastegi Ekainak 18
Iñigo eta Almudena

Nadir Lharrak
Ekainak 25
Karim eta Imane

Markel Kapanaga Alvarez
Ekainak 29
Aitor eta Ainara

HILDAKOAK

- Txomin Etxeberria Agote • **86 urte** • (Ekainak 6)
- Pepita Agote Urain • **83 urte** • (Ekainak 6)
- Luis Barrenetxea Garate • **65 urte** • (Ekainak 12)
- Alfonso Astaburuaga Olazabal • **75 urte** • (Ekainak 15)
- Pedro Intrausti Malaxetxeberria • **84 urte** • (Ekainak 18)
- Juanita Lopez Sanchez • **75 urte** • (Ekainak 20)
- Jorge Acebedo • **35 urte** • (Ekainak 24)
- Jose Mari Zubiaurre Urkiri • **89 urte** • (Ekainak 26)

ETXEBERRIA

Hileta zerbitzua
OSOA eta 24 ORDUKOA

TANATORIOA



KUTXAK
TRASLADOAK
KOROAK

NORBANAKOEI
eta
KONPAINIEI
zuzenduriko
zerbitzuak

Erietxe
zentruetan
zerbitzuak

Santa Klara, 14 • 20870 ELGOIBAR
Tel.: (Biltegia) 943 74 13 27
(Etxekoa) 943 74 01 17- 943 74 16 56
(Sakelekhoa) 635 756 295

Jaiotakoen atalean zure seme-alabaren erretratua jarri nahi baduzu, hilabeteko lehenengo barixakurako ekarri behar duzu erretratua BARREneko erredakziora edo barren@elgoibarkoizarra.com helbidera bidali.

Jaiotakoen argazkia jartzeagatik **2 euro** kobratzen dugu.

JOSE MANUEL ESNAL

Kartel egilea

Ingeniari teknikoa da Jose Manuel Esnal, baina orain dela hiru urte kartel lehiaketetan parte hartzen hasi zen. Betidanik gustatu izan zaio marraztea, baina ez zuen denborarik horretarako. Aurten Elgoibartik kanpo aurkeztu ditu lanak, eta, estreinako aldia izateko, oso emaitza onak lortu ditu. Besteak beste, Beasain, Ondarroa eta Debako jaietako kartel lehiaketak irabazi ditu. Baina bere ametsa San Bartolome Jaietako irabaztea da.

“Ohiko lanetik
ihes egiteko
beharrezkoa dut
kartelak egitea”

Zelan hasi zinen diseinu lanetan?

Betidanik gustatu izan zait margotzea baina familiak eta lanak denbora asko eskatzen zidaten, eta alde batera laga nuen. Orain dela hiru urte, baina, denbora gehiago edukitzen hasi nintzen, eta berriro ere marrazten hasia erabaki nuen. Ordenagailu bidezko diseinuko programa bat eskuratu nuen, eta, teknika menderatu arte ikastea erabaki nuen. Liburuak erosi, eta neure kabuz ikasi nuen.

Ingeniari teknikoa zara. Egiten duzun lana oso zehaztuta dago, baina diseinuak beste ate batzuk zabaltzen dizkizu...

Egunero egiten dudana oso araututa dago, oso zehatza da. Baina kartelak sortzean guztia zabalik dago, zehazteke: irudimena lantzen dut. Ohiko lanetik ihes egiteko beharrezkoa dut kartelak egitea.

Aurten estreinakoz parte hartu duzu Elgoibartik kanpo, eta oso ondo moldatu zara...

Hasieran Elgoibarren eta inguruko herrietan bakarrik hartzen nuen parte. Apurka-apurka, gehiago ikasten joan nintzen, eta ea bide onetik nindoan jakiteko, onena lehiaketetan parte hartzea zela pentsatu nuen. Zarauzko inauterietan epaimahaiaren sari berezia jaso nuen, eta hortik aurrera beste hainbat sari jaso ditut: Beasain, Berri, Ondarroa eta Debako jaietako kartel lehiaketak irabazi ditut.



Hala ere, sariez gain, poz handiena beste bi gauzek eman didate: Zarauzko jazz jaialdian 300 kartelen artean finalista izatea, eta Iruñeko Udaleko Kultura Batzordearen eskutitza jasotzea 478 kartelen artean nirea sailkatutako bat izateagatik.

Elgoibarren irabazi duzu saririk?

Danborradako kartela 2007 eta 2008 urteetan eta San Bartolome Jaietako accesita 2006 eta 2008 urteetan. Ilusioa egingo lidake herriko jaietako kartel lehiaketa irabaztea, neure lanak kaleetan eta egitarauan ikusteak ilusioa egiten didalako.

Zer teknika erabiltzen dituzu?

Marrazketa, *collage*-a, argazkilaritza eta ordenagailua erabiltzen ditut kartelak egiteko. Hala ere, gauza bat nabarmendu nahi nuke: kartelak egitea ez da artea: lana egitean epaimahai batekin pentsatzen ari zara, eta artea ezin daiteke baldintzatuta egon.

Ez zara etxeko artista bakarra. Alaba ere ondo moldatzen da...

Barruan daramagun zerbait da, nire etxean betidanik ezagutu dut pintura. Nire arreba oso ondo moldatzen da. Baina jaiotzatik artista nire alaba Alba da. Bere dohainek eta sentikortasunak txundituta lagatzen naute. Arte Ederrak ikasten ari da, eta asko laguntzen nau bere iritzi eta kritikekin. Momentuz, ez du parte hartu lehiaketetan, baina konpetentzia handia edukiko dut etxean.

San Fermin Jaiak

Elgoibarrera iritsi dira

Martitzenean entzierroa egin zuten herriko txikienek

Astelehen eguerdian bota zuten txupina-
zoarekin hasi ziren munduko festarik
ezagunenak, Iruñeko San Ferminak.
Jaien oihartzuna Elgoibarreraino ere ailegatu
zen. Batetik, San Fermin Txiki Eguna ospatu
zuten martitzenean, San Fermin Egunean (uz-
tailak 7), eta bestetik, sanferminetako entzie-
rroak zuzenean eta pantaila handian ikusteko
aukera dago Kultur Etxean, uztailaren 7tik 14ra
bitartean.

Udaletxeko balkoitik pregoia irakurri eta
gero, santuari salbea abestu ziren Plaza Han-
dian bildu diren gaztetxoek. Denak zuri-gorritz
jantzita, eta asko tolestutako egunkaria eskue-
tan zutela. Antxintxikari gaztetxoentzako mo-
menturik zirraragarriena ailegatu zen gero, en-
tzierroa. Korrikalariak eta zezenak San Barto-
lome kalean behera joan ziren zitzu bizian, eta
Nafaroa plaza eta Errosario kaleak pasata,
Plaza Handian sartu ziren berriz. Susto bat
edo beste kenduta, ez zen aparteko harrapa-
ketarik izan.

Plazan, ponien gainean ibiltzeko aukera
eduki zuten txikienek, eta zezen mekanikoan
koskortuagoek. Euri pixka bat egin arren, ez
ziren prestatutako ekintzak zapuztu.



‘Burdgingintza paisaiak’ erakusketa jarri dute ikusgai IMHko museoan



Elgoibarko erreminta-makinaren museoan
Fernando Calleja bilbotarraren erakusketa za-
baldu dute: *Burdgingintza paisaiak*. Bizkaiko La-
be Garaietan oinarritutako obra da. Izan ere,
umetan metalgintza-industriaz inguratuta bizi
izan zen Calleja, eta gaia asko gustatzen zaio-
la dio: “Burdinak atentzioa eman izan dit beti,
bai materialak eta baita geroko tratamenduak
ere”, azaldu du bizkaitarrak.

Erakusketa urriaren 4ra arte egongo da
zabalik ondoko orduategian: astelehene-
tik barrixakura, 8:00etatik 13:00etara eta 14:30etik
17:30era; zapatuetan, domeketan eta jaie-
gunetan, 11:00etatik 14:00etara; eta abuz-
tuan martitzenetik domekara, 11:00etatik
14:00etara.

Elgoibarko Kirol Patronatuak 4.300 bazkide ditu, herritarren %43 hain zuzen ere

Arduradunen arabera, oso kopuru altuak dira inguruko herriekin alderatuta

Elgoibarko Udal Kirol Patronatuko bazkide kopuruak gora egin du etengabe, eta, une honetan, herritarren %43 erakundeko bazkideak dira. Guztira, 4.300 lagunek daukate bazkide txartela. Udal Kirol Patronatuak 1996an hartu zuen Olaizaga kiroldegiko gestioaren ardura. Ordura arte, enpresa pribatu bat arduratzen zen kiroldegiaren gestioaz, eta 800 bazkide inguru zituen. 1996 urteko abuztutik hona, Kirol Patronatuko bazkideen kopurua handituz joan da. Orain dela pare bat urte 4.000 bazkideen muga gainditzea lortu zuen arte.

Bestalde, hileroko ikastaroetan eta ekintzetan 1.000 lagun inguruk parte hartzen dute. Patronatuak emandako datuak dira, eta arduradunen ustez, oso kopuru altuak dira, batez ere, "inguruko herrietako portzentajeekin konparatuta", adierazi dute.

Gero eta instalazio gehiago

Instalazioen eskaintza ere handitu egin du Kirol Patronatuak. Mintxetak azken urteetan bizi izan duen hazkundea nabaria izan da, arduradunen ustez. 2001ean estali gabeko igerilekuak egin zituzten, aldagelak gero, eta joan den urtean tenis pista berriak, BTT zentroa eta kirol anitzeko pista ere eraiki zituzten. Padel pistak, beriz, amaitzeaz daude.



Ekainaren 28ko BTT irteeran 38 elgoibartarrek hartu zuten parte

Jubenilen Euskadiko Txirrindulari Txapelketa jokatu dute Mendaron Javier Ezenarro Memorialean



Mendaroko Txirrindulari Elkartek antolatuta, Jubenilen Euskadiko Txapelketa jokatu zuten joan den zapatuan, Javier Ezenarro Memorialean. 93 kilometroko ibilbidea egin zuten parte hartzaileek. 149 txirrindularik ekin zioten probari, baina 88 iritsi ziren helmugara, eta Mikel Apalategi donostiarra izan zen irabazlea. Bigarren sailkatua Xabier Aranzeta izan zen, eta hirugarren postuan Unai Intziarte iritsi zen. Imanol Cid izan zen partehartzaile elgoibartar bakarra, eta 23. postuan sailkatu zen. Jose Manuel Muñozek sari berezia jaso zuen, Mendaron egin izan diren lasterketetan eskainitako lanaren ordainetan.

Gernikatik Lagara irteera antolatu du Morkaikok, hilaren 18rako

Morkaikok antolatuta, Gernikatik Lagara hondartzara egingo dute irteera, uztailaren 18an. Urdaibako biosferaz gozatzeaz gain, Lagara hondartzan bainua hartzeko aukera ere izango da. 8:00etan irtengo da autobusa Plaza Handitik, eta 20:00etan izango da itzulera. Interesatuak Morkaikoren lokalean eman dezakete izena. Bazkideek zazpi euro ordaindu beharko dituzte, eta gainontzekoek hamar euro.

Loiolarentzat pilotari onenaren saria Usurbilgo txapelketan

Lizasok eta Loiolak osatutako bikoteak irabazi du Usurbilgo pilota txapelketa 22-12 emaitzarekin, Aranburu eta Elolaren kontra. Gainera, Eneko Loiola elgoibartarrak jaso du jokalaria onenaren saria.

Gorka Merino izan da 40-15 tenis txapelketako irabazlea

Iñigo Araujori 6-1 eta 6-0 irabazi zion Mintxetan jokatu zuten finalean

Gorka Merinok nagusitasun osoz irabazi du 40-15 tenis txapelketa. 6-1 eta 6-0 nagusitu zen Iñigo Araujoren aurrean, baina, hala ere, partida gogorra izan zela adierazi du: "Emaitzak kontrakoa erakutsi arren, ez zen erraza izan irabaztea. Araujok ni baino huts gehiago egin zituen". Finalerdietan Arrasategi emuarra gainditu ondoren sailkatu zen finalerako Merino. Araujok errazagoa eduki zuen finalerako txartela. Izan ere, finalerdietan zuen aurkariak, Javi Guallarrek, ezin izan zuen partida jokatu, eta zuzenean sartu zen Araujo finalean.

50 partaide

Estreinakoz antolatu du aurten 40-15 elkarteak tenis txapelketa, eta 50 lagunek hartu dute parte. Merinok esandakoaren arabera, Elgoibarren badago teniserako



Ezkerrean Gorka Merino txapeladuna eta eskuinekoa Iñigo Araujo.

joera, eta azken urteotan lan ona egiten ari dira azpiegiturak prestatzeko. Elkarteak erakutsi duen antolamendu ona ere nabarmendu du jokalaria, eta datorren urtean garaipena defenditzeko asmoa duela esan du.

Beste sarien artean, Mariano Alvarezek errebelazio jokalaria saria jaso zuen. Gaztetxoek txapelketan Aner Cardok jantzi du txapela mutiletan, eta Maria Badiola izan da irabazlea nesken mailan.

Igor Elizburuk Gipuzkoako handbike txapelketa irabazi du eta Euskadiko Txapelketan 3. geratu da



Debabarrena taldeko Igor Elizburuk Gipuzkoako handbike txapelketa irabazi du, bi modalitatetan: batetik, ekainaren 27an erlojupeko saioa jokatu zen Andoainen, eta bera izan zen Gipuzkoako onena. Euskadiko sailkapen orokorrean hirugarren postuan geratu zen. Bestalde, ekainaren 28an, Zarautz-Zumaia-Zarautz ibilbideko proban hartu zuen parte, eta han ere, bera izan zen Gipuzkoako onena. Berriz ere, hirugarren lekuan sailkatu zen, Euskadiko Txapelketan. Handbike alorrean zazpi lagunek hartu zuten parte, eta guztira, 50 inguru izan ziren partehartzaileak. Igor Elizburuk esandakoaren arabera, haize handia egin zuen, baina gustura aritu zen.

EMAITZAK

SIGMAKO PILOTA TXAPELKETA

Benjaminak

Idigoras **14** – Larrea **16**

De la Arada **16** – Arriola **14**

Kadeteak

Amesti **18** – Calvo **5**

Bigarren maila

Agirrebeña III – Beñat **7**

Konde – Txurruka **22**

Lehenengo maila

Unamunzaga – Agirrebeña I **11**

Agirrebeña II – Lizarralde **22**

Alain – Ander **7**

Zubizarreta – Txurruka I **22**

Zazpi elgoibartar Iratiko Tourrean

Iratiko Tourra jokatu zen joan den domekan, eta Elgoibarko zazpi lagunek hartu zuten parte bertan. Emakumezkoen artean, Ainhoa Lendinez izan zen lehenengoa 38'28" denborarekin. Koro Gabiola hirugarren iritsi zen helmugara, 44'58" denborarekin. Gizonezkoen artean, Iñaki Goñi izan da herriko onena 42'31" denborarekin. Gainontzeko elgoibartarrak Iñaki Iraola, Iñigo Iturbe, Saioa Iriondo eta Igor Elizburu izan ziren.

LANA

ESKAERA

- Emakumea, etxeak eta garbitzen edo haurrak eta nagusiak zaintzen lan egiteko prest. ☎ **628 014 327**
- Emakumea, etxeak garbitzeko prest. Interna, externa edo orduka. ☎ **698 813 826**
- Neska, zerbitzari lanetarako, garbiketa lanetarako eta haurrak edo nagusiak zaintzeko prest. ☎ **617 056 828**
- Emakumea etxeko lanak egiteko prest. Arratsaldez. ☎ **943 743 251**
- Frantseseko eta ingelesko klase partikularrak, maila guztietan. Haur eta nagusiak. ☎ **688 683 274**
- Gizonezkoa edozein lanetarako prest. Orduka. ☎ **669 285 475**
- Familia euskaldunak *au-pair-a* behar du Londresen Iraitetik aurrera. Idatzi *mirenlondon@hotmail.com* emailera edo deitu. ☎ **00447768243191**
- Emakumea haurrak edo nagusiak zaintzeko prest. Arratsaldez edo gauez. ☎ **648 192 683**
- Emakumea pertsona nagusiak zaintzeko, etxeko lanak edo edozertan lan egiteko prest. ☎ **678 939 382**
- Emakume gaztea, pertsona nagusiak edo haurrak eta garbitzaile lanak egiteko prest. ☎ **686 578 228**

- Emakumea etxeko lanak, garbiketa lanak eta haurrak edo nagusiak zaintzeko prest. ☎ **680 808 125**
- Pertsona bat behar da uztailean klase partikularrak emateko. Goizez. ☎ **615 787 118**
- Emakumea, nagusiak zaintzeko edo etxea garbitzeko prest. Orduka. Egun guztian zehar. ☎ **671 343 612**
- Emakumea, nagusiak zaintzeko edo etxea garbitzeko prest. Orduka. Egun guztian zehar. ☎ **671 476 869**
- Neska euskalduna umeak zaintzeko prest. ☎ **660 916 466**

ESKAINZA

- Sukaldeko laguntzailea eta zerbitzaria behar dira. ☎ **943 743 196**
- Elgoibarko Udalak obren lantalderako hamar langile kontratatuko ditu. Eskabideak aurkezteko epea ekainaren 25era arte. ☎ **943 471 050**
- Sukalderako laguntzailea behar da, esperientzia-rekin. ☎ **943 121 262**

ETXEBIZITZAK

SALMENTA

- Buhardilla saltzen da Aitzolan. Prezio onean 42.000 euro. ☎ **625 708 042**

ALOKAIRUA

- Santa Polan (Alacant) apartamentua alokatzen da. Udako hilabeteetan. ☎ **620 652 083**
- Benidormen etxebizitza alokagai. Erosoa, zentrikoa eta hondartzako 2. lerroan. Prezio onean. ☎ **943 740 628**
- Donostian etxebizitza alokagai, Egia auzoan. Abuztuan. ☎ **655 723 678**
- Apartamentua alokatzen da Santo Domingo de la Calzadan (Errioxan). Erdigunean. Prezio onean. ☎ **941 341 437 / 676 882 373 (Esther)**

BESTELAKOAK

- Erosketa karroa nahi gabe aldatu egin dut Eroskin. Mediki errezeta asko neuzkan bertan, eta berreskuratu nahiko nuke. ☎ **943 740 385**
- Nintendo DSla galdu da Antonio Arrillagako zuhaitzaren parkean. ☎ **605 724 335**
- Gasoilezko berogailua saltzen da. ☎ **943 743 505**
- Urrezko belarritako bat galdu da Banco Guipuzcoanotik Eroskira bidean. ☎ **943 740 365**

OHARRA:

Salmentarako eta alokairurako iragarkiak ordaindu egin behar dira. Iragarkiak hiru astetan agertuko dira BARRENen eta astero *barren.iragarkilaburrak.com* atarian. Etxeak, lokalak eta garajeak: salmenta **15 euro** eta alokairua **10 euro**. Autoak **10 euro**. Eta bestelakoak **5 euro**. Eguazten eguerdia baino lehen. Tel.: 943 743 704

MODULOAK

Lana / Bestelakoak

- Astebete : 5 euro**
- 2 aste : 8 euro**
- 3 aste : 10 euro**

Etxebizitzak/ Garajeak/ Motorra

- Astebete : 10 euro**
- 2 aste : 17 euro**
- 3 aste : 25 euro**

**GIDA KOMERTZIALA
2009-2010**

**Gida komertziala prestatzen ari gara,
zure negozioaren telefona agertzea nahi baduzu, deitu zenbaki honetara:**

943 743 704

edo helbide honetara idatzi:

barren.publi@elgoibarkoizarra.com



• Zorionak **Aroa**, 9 urte bete dituzulako. Familia guztiaren partez, bereziki, Maialenen partez.



• Zorionak, **Iñigo**, gaur 10 urte! Etxekoan partez ondo pasa eguna.



• Zorionak, **Iker**. Atzoko partez bi tirakada. Familiaren partez muxu potolopotolo bat.



• Zorionak, **Eneko!** Gaur 4 urte betetzen dituzu. Gurasoen partez muxu asko!



• Zorionak, **Jurdana**. Bihar 7 urte dagoeneko! Besarkada eta muxu handi bat etxekoan partez.



• Zorionak **pequeña gorriona**, urtetik urtera gero eta politago eta lotsatiago zaude. Txikia eta Handia.



• Zorionak, **Nalara**, joan den barixakuan urtebete egin zenuelako. Muxu! Verónica eta Rolando.



• Zorionak, **Manar**, eguaztenezan 8 urte. Zortzi muxu potolo familiaren partez, bereziki Badr eta Lina.



• Zorionak, **Mikel**, gaur 11 urte. Familiaren eta bereziki Nerearen partez.



• Zorionak zure 80. urtebetetzean. Ondo-ondo ospatu domekan. Etxekoan partez.



• Zorionak, **Sugar**, 5 urte! Ongi pasa laguntxoekin eta muxu potolo bat etxekoan partez, maitia!



• Zorionak, **Helene**, hilaren 10ean 10 urte. Ondo pasa familiaren partez. Muxu bat Joneren partez



• Zorionak, **Leire**, printzesa, 6 urte. Aita, ama eta Koneren partez. Muxu pilo bat. Laster Jonak, 3 urte!



• Zorionak, **Unax**, zorionak, **Maddi**. Uztailaren 8an zazpi muxu batak besteari.



• Zorionak, **Iria, Asier eta Marcos**, 3, 12 eta 9 urte egin dituzuelako. Ondo pasa familia guztiaren partez.



• Zorionak, **pípirriñak** Ekaina pasatziakin batera 4 txikixek urte bat gehixo bete dute. Berandu, baina muxu bana!



• Zorionak, **Jose eta Sarai**, asteburuan ezkonduko zaretelako. Ondo pasa familia eta lagunen partez!

ZORIONAK



• Zorionak, **Garazi, Elene eta Irune**. Urte bat egiten duzuelako. Familia eta lagunen partez.



• Zorionak, **tia Puri eta tío Jesus**. Ondo pasa zuen zilarrezko ezteietan. Etxekoan partez.

OHARRA

Erretratu bakarreko agurra: 2 euro.
Argazki bikoitza: 3 euro. Hirukoitza edo handiagoa: 5 euro. Norbait zoriondu nahi baduzu, argazkia **eguztzen eguerdia** baino lehen ekarri behar duzu. **BARRE**Neke bulegora 12:00ak baino lehen, edo barren@elgoibarkoizarra.com e-postara bidali.

OKINDEGIAK

12 domeka **IZAGIRRE**

FARMAZIAK

24 ORDUZ

- 10 Etxeberria (Santa Ana)
- 11 Ibañez
(*Goizez Etxeberria S.A.)
- 12 Ibañez
- 13 Zabaleta
- 14 Yudego
- 15 Etxeberria (Santa Ana)
- 16 Ibañez
- 17 Garitaonandia-Bidasolo

Ibañez

Rekalde, 1 (SORALUZE)
Tel: 943 751 638


Fernandez

Herriko enparantza 4,
Garagarza (MENDARO)
Tel: 943 756 142

Zabaleta

Kalebarren, 9 (SORALUZE)
Tel: 943 751 384

**INFORMAZIO
GEHIAGO:**



Egin klik

www.elgoiBAREN.net



**«Las chicas
de la lencería»**

10, barixakua: 22:30
(Plaza Handian)

10 barixakua

Akanpaldia

19:00 Karakaten akanpaldia lruyako trikuharriaren inguruan gaua pasatuko dute. Natura bisita egingo dute, eta musikitarra vietnamitaz girotuko dute gaua, Arno, Izarraitz eta Muskurutxu bizirik nahi duten taldeek.

11 zapatua

Kirola

11:00 Plater-tiro ikuskizuna Kilimon Zahar elkarteak antolatuta, Ospas Gaineko futbol zelaietan. Mendaron.

12 domeka

Omenaldia

11:00 Zahartzaroari omenaldia Mendaroko txistularien kalejirak hasiko du eguna. Ondoren, meza izango da Goñati pilotalekuan. Jarraian, euskal dantzak eta eguerdian bazkaria egingo dute Aizpe elkartearen, Mendaron.

13 astelehena

Entseguak

20:30 Parrokiako koroa Abuztuaren 23ko salbean eta abuztuaren 24ko meza nagusian abesteko entseguak. San Bartolome parrokian.

15 eguaztena

Entseguak

20:30 Parrokiako koroa Abuztuaren 23ko salbean eta abuztuaren 24ko meza nagusian abesteko entseguak. San Bartolome parrokian.

LUDOTEKAKO EKINTZAK

- BARIXAKUA 10**
Udako sukaldaritza 17:00
- ASTELEHENA 13**
Wii 17:30
- MARTITZENA 14**
Azkoitira irteera 15:00
- EGUAZTENA 15**
Mintxetara irteera 16:00
- EGUENA 16**
Debara irteera 10:00

GIG
Gazte Informazio gunea

**Bazoaz oporretan?
Bidaia liburuak
Deskontu txartelak
Aldizkariak**

...

**Astelehenetik eguenera
10:00etatik 14:00etara**

Denontzat. Suitza, 2006. Zuzendaria: Bettina Oberli. Aktoreak: Stephanie Glaser, Hanspeter Muller. 90 minutu.

Marthak ezin izan du senarraren heriotza gainditu eta bizitzari esanahi bat aurkitu nahi

dio. Gau batean, hil egingo dela pentsatuz oheratuko da. Baina bere hiru lagunek konbentzitu egingo dute modista bilakatzeko, nahiz eta 80 urte egin dituen. Barneko arropako denda bat irekiko du Marthak.



17 barixakua

Eskubaloia

19:00 Sanlo EKTren batzar nagusia

Aurtengo eta datorren denboralidko egoera ekonomikoaren berri emango dute. Kultur Etxeko hitzaldi gelan.

19 domeka

Irteera

9:00 Errioxara irteera
Haizeak antolatuta, kurtso amaierako irteera egingo dute, San Millan de la Cogolla herrira.

Musika

10:15 Debako Musika Banda
Kalejira egingo dute, herriko kaleetan zehar.

Musika

12:30 Debako Musika Banda
Kontzertua eskainiko dute. Herriko Antzokian.



Gure gomendioa

Gaupasa Karakaten

Uztailak 10, barixakua, 19:00etan

Arno, Izarraitz eta Muskurutxu ingurua bizirik nahi duten taldeek antolatuta, Karakaten gaua pasatzeko plana egin dute gaur gauerako. Herritar guztiak daude gonbidatuta. Ahal dela, oinez igotzeko deia egin dute antolatzaileek. 19:00etatik aurrera, Karakaten egin dute hitzordua. Badaezpada kanping denda eramateko gomendioa egin dute.



Zerikasi

IKASTAROAK

Forja lanen hastapenak

Norentzat: 16 urtetik gorakoentzat
Hizkuntza: Euskaraz edo gazteleraz
Hasiera data: 2009-07-13 / Bukaera data: 2009-07-17
Non: Deban
Izenemate bukaera: Kontsultatu

Bulegoa kudeatzeko informatika aplikazioa

Norentzat: Langabetuentzat
Hizkuntza: Gazteleraz
Hasiera data: 2009-09-01
Non: Eibarren
Izenemate bukaera: Kontsultatu (901 100 003)

Ohiko mekanizazioa

Norentzat: Langabetu edo ikasleentzat
Hizkuntza: Gazteleraz
Hasiera data: 2009-09-07
Non: Elgoibarren
Izena emateko: Kontsultatu (943 744 132)

Reiki ikastaroa

Norentzat: Interestauentzat
Hizkuntza: Gazteleraz
Hasiera data: 2009-10-31
Non: Eibarren
Izena emateko: Kontsultatu (665 743 217)

Diseinu grafikorako teknikaria

Norentzat: Langabetuentzat
Hizkuntza: Gazteleraz
Hasiera data: 2009-10-01
Non: Eibarren
Izena emateko: Kontsultatu (943 120 156)

Informazio eta eskaintza zabalagoa:
www.zerikasi.com edo 943 74 82 71

«Batman»

11, zapatua: 22:30
(Plaza Handian)

13 urtetik gorakoentzat. Estatu Batuak, 2008. Zuzendaria: Christopher Nolan. Aktoreak: Christian Bale, Heath Ledger. 147 minutu.

Ustelkeria bolada baterako Gotham Citytik desagertu dela dirudi. Baina hiriak eta Batmanek etsai beldurgarri bat izango dute: The Joker.

Gure berbak

Hiztegixa: bedarrak eta landariak (2)

Hiztegi-kontuetan, bedar-, landara- eta lora-izenekin jarraituko dogu gaurkuan ere, hurrenkera alfabetikuan.

- ◆ **BABA BELTZ**, **baba beltza**: "Haba".
- ◆ **BABA GORRI**, **baba gorrixa**: Babarrun gorria.
- ◆ **BABA ZURI**, **baba zurixa**: Babarrun zuria.
- ◆ **BAIÑA**, **baiña**: Leka. Pluralian erabiltzen da jeneralian.
- ◆ **BEDAR**, **bedarra**: Belarra. *L/D* alternantziak eragiten dau Elgoibarko forma hau (*edur* eta *idar* hitzetan bezela).
- ◆ **BEDARRONDO**, **bedarrondua**: iz. Belarrondoa, "heno". *Bedarra ondu, bai. Bedarrondua esate jakok.*
- ◆ **BENDA-BEDAR**, **benda-bedarra**: "Menta", usain gozoko belarra, erretzak egitteko ere erabiltzen zana.
- ◆ **BERAKATZ**, **berakatza**: Baratxuria. *Ointxe dator berrixa: letxua, aza, berakat, kipula, idar, baba berri, ba, horrek danok daude oiñ, etortzen daude. Berakat-atala. Berakat-burua. Berakatza baiño fiñagua izan:* Oso pertsona fiñengatik esaten da.
- ◆ **BERBENA-BEDAR**, **berbena-bedarra**: "Verbena", sendabelar mota bat, bronki-xuak-eta garbitzeko erabiltzen dana.
- ◆ **EBA(G)I-BEDAR**, **eba(g)i-bedarra**: Sendabelar mota bat, ebakixak-eta sendatzeko erabiltzen dana. **lodo-bedar** ere esaten jako.
- ◆ **ELOR-ARANTZA**, **elorr-arantzia**: Elorria, generikoa. **Elorr-arantza beltza**: "Endrino". Patxarana egitteko okaranak ematen dituana. **Elorr-arantza zurixa**: Elorri zuria.
- ◆ **ERREMOLATXA**, **erremolatxia**: Erremolatxa.
- ◆ **ERREMU**, **erremua**: Ereinotza, "Laurel".

Jesus Mari Makazaga

Erretratu zaharra

1907

Aste honetako erretratu zaharra Rosa Unzuetak ekarri du BARREnera. 1907. urtekoa da. Erretratuan azaltzen diren gizonak elgoibartarrak dira, Koadrilako kide batek Madrilera bidali zuen argazki hau postal modura, medikuntza ikasten ari zen Antonio Arrillagarentzat. Ondoren, mediku ezaguna izan zen herrian. Erretratuan azaltzen diren guztiak hilda daude. Iksu dezagun zein diren:

Goian, ezkerretik eskumara: Jose Mari Muguruza (Pedro Muguruza arkitektoaren anaia), Juan Unzueta *Moskote*, Aizpiri *Sartuitxa*, Victor Gisasola (Musika Bandako baxujolea), Guillermo Armendia *Torlojerokua*, Castor Arriola (alkate ohia), Juanito Irueta.

Makurtuta: Antonio Urreta.





URKIDI
AHOLKULARITZA



Antonio Urkidi
Josefina Fernandez

Tel.: 943 74 18 91
Faxa: 943 53 01 49
Kalamua, 12



**EIBARKO
HIZKUNTZA
ESKOLA
OFIZIALA**

EUSKO JAURLARITZA



**Eibarko HEOK matrikula
ofiziala uztailak 7-24 eta
irailak 1-7 artean izango
dela adierazten du**

- Maila Probak Eskolako web orrian egin ditzakete ikasle berriek

**Informazio gehiago:
943 20 06 18 telefonoan
eoeieibar@euskalnet.net
www.eoeieibarheo.net**



Badatoz San Bartolomeak !!!

Publizitatea jartzeko: 943 743 704



Gremioen

GIDA



Aroztegiak

Asima

Mota guztietako arotz lanak
Ermuaranbide, 18
☎ 687 15 02 26
☎ 650 02 66 31

Biena

Neurrira egindako lana
Ermuaranbide, 16
☎ 943 74 31 16

García

Aluminioa eta PVCa
P. Muguruza, 30
☎ 943 74 32 38

Imar

Aroztegia
Olaso 15,55 pabilloia - A1
☎ 943 53 14 71
☎ 609 05 49 78
Era guztietako arotz-lanak

Lodoso Leihoak

Sigmako Industrialdea
Xixilion 2-2. pabilloia - 3. zenb.
☎ 943 74 34 90
Faxa: 943 74 73 12
www.fjlodoso.euskalnet.net

Ulazia

Aroztegia eta enbalajeak
Santa Klara, 10
☎ 943 74 05 47



Iturgintza, berogailua, eguzki energia, gasa eta klimatizazioa

Ibámar

Bernardo Ezenarro, 2
☎ 943 53 18 47
☎ 647 463 436 (Floren)

Ongi

Olaso Poligonoa, 15-68 pabilloia
☎ 943 74 28 80

Pagoaga

San Antolin, 13
☎ 943 74 02 79

Pagoerrotza

Herriko Enparantza, 10 behea
MENDARO
☎ 943 75 60 44/659 33 43 23

Tellabide

Azpilgoeta, 7 • MENDARO
☎ 943 75 50 62/607 75 50 62

Santana iturgintza eta instalazioak

Urasandi, 17
☎ 943 74 05 30/605 71 49 05
Faxa: 943 53 18 25

Zubizarreta instalazioak

Ubitarte, 5 behea
☎ 943 74 07 89/650 58 61 44



Proiektu eta erreformak

Estudios Arrillaga

Errosario, 15 behea (Elgoibar)
☎ 943 744 055/943 744 019
Arragueta, 12 behea (Elbar)
☎ 943 200 698



Elektrizitatea

Carranza

Lehen Aramar, orain Carranza
Morkalko, 1
☎ 943 74 12 80

Azpeleta

San Frantzisko, 51
☎ 943 74 12 38

Joseba

Kilimon hiribidea, 1 (2. lokala)
MENDARO
☎ 659 934 964

Urzelai

Santa Ana, 12-14
☎ 943 74 13 76



Igeltseritza

E. Arandia

Urasandi, 22 behea
☎ 605 70 52 04



Autoentzako tindatutako kristalak

Glas Control S.L.

Olaso 27, 47. pabilloia
☎ 943 74 30 94



Pinturak

Biok dekorazioa S.L.

Santa Klara, 26 behea ezk.
☎ 943 74 15 52
☎ 606 43 11 19-20

Ipintza

Foruen enparantza, 4
☎ 943 74 04 40
☎ 607 74 04 40

Ku Kolorea

Urasandi kalea, 26 behea
☎ 943 74 88 43
☎ 660 52 25 87

Desigual

San Inazio, 5 behea
☎ 943 748 925
☎ 677 846 069
Faxa: 943 531 502
pinturasdesigual@hotmail.es



Lorzaintza

Pagoa loradenda

Nafarroa plaza 1
☎ 943 74 01 89
☎ 688 631 307

